

Creativity World Forum 2024

Euskadi Basque Country

BIDAIA

Laburpena



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

DC NETWORK

Creativity World Forum 2024




*2004an sortua, mundu osoko eskualdeak batzen ditu **Sormen Barrutien Sareak (DC Network)** diziplina arteko sormena bultzatuko duten praktikak partekatzeko eta garatzeko, baita berrikuntza sustatuko dutenak bultzatzeko ere, mundu-mailako erronkei aurreegiten laguntzeko etorkizun hobe bat izateko.*



TESTUINGURUA ETA GAI NAGUSIA

DC NETWORK

Bi urtean behin, DC Network sareko eskualdeetako batek Sormenaren Mundu Foroa (aurrerantzean, CWF24) antolatzen du. DC Network sarearen konferentzia eta topaketa enblematiko bat da, pertsona ugari biltzen eta inspiratzen dituen, hala nola gobernu-agintariak, enpresaburuak, sortzaileak edo arduradun politikoak, sormenari, berrikuntzari eta enpresa-espirtuari buruz eztabaidatzeko. Diziplina anitzeko lankidetzat du ardatz, barruti antolatzaileak gaia, ikuspegia eta planteamendua aukeratzeko pribilegioa badu ere. Gainera, CWF foroaren markoan DCLivingLab programa bat ere antolatzen da. Sormenari eta berrikuntzari buruzko ikasleen nazioarteko truke-programa bat da, SB Sormenaren Barruti guztietako ikasleei KSI Kultura eta Sormen Industrien erronkei ekiteko nazioarteko lantalde batean lan egiteko aukera eskaintzen diena.



Eusko Jaurlaritzak antolatuko du **CWF24** foroa eta **Euskadin** izango da 2024ko apirilaren 15ean, 16an eta 17an. 500 lagunek baino gehiagok parte hartuko dute konferentzian.

Euskadin azken urteetan [Euskadi Sortzailea estrategiaren](#) bidez garatutako KSIen politiken ildo beretik, honako hau da **CWF24 foroaren gai nagusia**:

Kultura- eta sormen-ekosistemak: governantza-ereduak eta berrikuntza



Sektore estrategikoa eta mundu osoan garatzen ari dena dira, zalantzarik gabe, KSIak. Azken urteetan, estatistika ugari erakutsi dute sektore horren garrantzi gero eta handiagoa, eta industria horiek izan duten eragina ekonomiaren garapenean eta lurraldeen biziberritzean. Adibidez, Eurostaten zifren arabera, 8,7 milioi pertsonari ematen diete enplegua KSiek EBn, hau da, EBko laneskua % 3,8ari eta 1,2 milioi enpresa biltzen dituzte guztira.

Berrikuntzaren eragileztat jotzen dira KSIak. Eusko Jaurlaritzak egindako [«Contrast II. KSI eta Berrikuntza: ekosistemak, tipologiak, neurketa eta inpaktuak»](#) azterlanaren arabera, berrikuntza bultzatzen duten arrazoiak ez dira nagusiki ekonomikoak, alderdi horrek bere pisua badu ere berrikuntzak KSlen agenteentzako itzulera ekonomiko garrantzitsua duelako; adibidez, industria horien diru-sarreraren % 59,1 aldaketa esanguratsuak aplikatu zituzten produktuetatik datoz.

KSletako berrikuntzak ez ditu soilik diru-sarrera indibidual edo pribatuak sortzen eta, horrekin batera, kanpo-efektu garrantzitsuak ere badakartza, batez ere arlo sozial eta kulturekoak. Eta are garrantzitsuagoa, funtsezko rola daukate gizarte inklusibo eta jasangarriagoak lortzeko bidean aurrera egiteko. Horrek bitxi eta bakan egiten du KSletako berrikuntzaren balioa.


Horrenbestez, politiken eta berrikuntzaren ikuspegi integratuago bat duten eredu berriak aplikatu behar dira **oraindik ustiatu gabeko KSlen potentziala aprobetxatzeko**.

Marko horretan, oinarri berritzaileko KSlen ekosistema desberdinetan bilakaera izaten ari diren eta etengabeko aldaketan dauden **lau arlo tematiko (AT)** hautatu ditugu honako gai hauei buruzko ezagutza zehatza lortzeko:


- maila anitzeko eredu eta politika eraginkorragoen diseinua **(1.AT)**;
- nola bultzatu berrikuntza KSlekin eta haien barruan **(2.AT)**;
- nola hobetu lehiakortasuna enpresen eta KSlen merkatuen artean **(3.AT)**; eta
- hezkuntzaren eta ikerketaren rola KSletan **(4.AT)**.

CWF24 foro honetan, **ibilbide bat proposatzen dugu** lau arlo tematiko horietan barrena orokorrean, **izan dituzten bizipen propioekin kontrastatu nahi ditugun** esperientzien bidez, etorkizun hurbilean lankidetzarako posibilitateak sortzeko helburuarekin. CWF24 foroa esperientzia aberasgarria izan dadila espero dugu, aldaketa horiek hobeto ulertu eta etorkizunerako erronka berriak proposatzeko.

HELBURUAK



KSletako **gobernantza- eta berrikuntza-alorreko joera berriak** eguneratzea.



Balio gehitua duten proiektuak partekatzean oinarritutako tokiko eta nazioarteko lankidetzak-**inguruneak** sortzea.

Gainera, CWF24 foroak **DC Network** sarea bera dinamizatu nahi du nazioartean **lankidetzak-potentzial handiko proiektuen identifikazioa eta bultzada ahalbidetzen duen CWF foroak eredu batean** oinarrituta. Eredu-aldaketa hori lortzeko bitarteko gisa, **funtsezkoa da DC Network sareko kultura- eta sormen-barruti guztien parte-hartzea**.

EGOITZAK ETA FORMATUA

2024ko apirilaren 15ean, 16an eta 17an izango da CWF24 foroa **Euskadiko Autonomia Erkidegoko 3 hiriburuetan**. Lehenengo eta hirugarren egunean biltzarrean presentzialki zein birtualki egoteko aukera izango da, eta bigarren egunean **presentzialki soilik**.

Bilbok hartuko ditu Euskalduna Jauregian ekitaldiaren lehenengo eta hirugarren egunak. Hilaren 15eko ekitaldia **ongietorriarekin eta inaugurazio ofizialarekin** hasiko da, eta horren ondoren CWF24 foroaosatzen duten 4 AT arlo tematikoen aurkezpena izango dugu, aurkezpen horiek guztiak inspirazio-iturri eta **harremanetan jartzeko saio** gisa baliagarriak izango direlarik. Arratsaldean, **hirian** bisitatu ahal izango dituzten KSlen hainbat ibilbideren artean hautatzeko aukera izango dute bertaratuek.


Hilaren 16an, ATaren arabera banatuko da programa, eta leku batean baino gehiagotan gauzatuko da. AT1-eko lan taldekoak Gasteizko Artium Museoan egingo dute lan, AT2 eta AT3-koak Bilboko Euskalduna Jauregian eta AT 4 eta DC Living Lab-eko taldeak Donostiako Tabakalera Zentroan arituko dira. Egoitza bakoitzean, **taldetan lan egitea eta sinergiak sortzea da** ideia, batez ere erronken eta nabarmendutako proiektuen artean. Hiri horietako KSlarekin lotutako gune nagusiak bisitatzeko aukera izango dute halaber parte-hartzaileek.

Hilaren 17an, **baterako azken saioa** izango da Bilbon AT bakoitzaren emaitza nagusiak aurkezteko. Berriro ere, harremanetan jartzeko bilkuretan parte hartzera animatuko ditugu parte-hartzaileak. Etxera lankidetzarako ideia eta aukerekin itzultzea da helburua KSlak modu berritzaile eta jasangarrian **indartzen jarraitzeko**.

Azken programaren xehetasunak kontsultatu daitezke [hemen](#).



EUSKADI EUSKAL HERRIA



Creativity
World Forum
2024
Euskadi Basque Country

BILBO

[Euskalduna Jauregia](#)



DONOSTIA

[Tabakalera Zentroa](#)



GASTETZ

[Artium Museoa](#)



ARLO TEMATIKOAK ETA DC LIVING LAB PROGRAMAK


KSlek gizartearen erronka handiak gainditzeko eragile gisa duten potentziala askatzeko, helize boskoitzean oinarritutako baterako gobernantzako ikuspegi integratu bat egokitu behar da nahitaez. Helburu horrekin, industrian interesatutako zati nagusiak politiken elaborazioan nahitaez inplikatu behar direla dirudi, eta, haiekin batera, mundu akademikoak, sektore publikokoak eta, jakina, berrikuntzaren ekosistemakoak, betiere parte-hartze bidezko prozesu bat bermatzeko.

Haatik, beren potentzial ezaguna gorabehera, **KSlek ere erronka garrantzitsuei egin behar diete aurre**, nahitaez bideratu beharrekoak. Adibidez, beharrezkoa dirudi KSlekin eta haien barruan elkar aberastea nola sustatu behar den ulertzea, tokiko merkatu eta merkatu globalean sartu daitezen bultzatuz, eta finantzaketa pribatua ere bultzatuz, baita enpresa-abilezien hobekuntzan ere.

Testuinguru horretan, **lau lantalde sortu dira (lau ATtan egituratutakoak)** CWF24 foroko helburuak lortzeko. Gobernantza eta KSIak ditu ardatz 1.ATak; berrikuntza KSlekin eta haien barruan 2.ATak; enpresa eta merkatuetan 3.ATak, eta KSletako hezkuntzan eta ikerketan 4.ATak.

Euskadiko erakunde gailen batek koordinatzen du AT bakoitza, betiere esperientzia handiko bere alor espezifikoan eta lankidetzan-ingurunetan lan egitera ohitutakoa. Foroaren bigarren egunean, lan-programa espezifiko bat eta **hiru euskal hiriburu horietako** hainbat lekutan garatuko diren jarduerak izango ditu AT bakoitzak.

Lau ATez gain, baina betiere haiekin estu lotuta, nazioarteko ikasleen **DC Living Lab** programak funtsezko rola izango du CWF foroan. Edizio honetan, lau DC Living Lab programa antolatuko dira KSlan Education and Research 4.ATaren babesean, **AT bakoitzean zeharka integratuta** egongo badira ere lantalde bakoitzean proposatutako erronketarako soluzioak aurkitzeko helburuarekin.





HELBURUA

Maila anitzeko politika eta gobernantza-eredu eraginkorrak diseinatzea, KSIen ekosistema dinamiko eta kolaboratiboei laguntzeko eta trantsizio hirukoitzaren (soziala, ingurumenari dagokiona eta digitala) erronka nagusiei heltzen lagunduko duen sektore arteko berrikuntza sustatzeko.

ERAKUNDE KOORDINATZAILEA

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila Euskadi Sortzailea estrategiako gidaritza-taldearen izenean.



1. ERRONKA

Berrikuntza-ereduak KSletako gobernantzarako nazioarteko politiketan

MUSEOAK ETA ONGIZATEA – KULTURA-PRESKIPZIOA

PLATFORM IN DE MAAK

EMPATHEATRE



2. ERRONKA

KSletako politikak ebaluatze sistemak

ECCOM


SORMEN-INDUSTRIEN EBIDENTZIA ETA POLITIKEN ZENTROA (Creative PEC)

inDICES

CREADIS3
 (Euskadiko kasua)



**KSIETAKO POLITIKAK
 EBALUATZEKO SISTEMAK**
 (Erresuma Batua)






ERAKUNDE KOORDINATZAILEA

Innobasque Berrikuntzaren
Euskal Agentzia, Tecnalia
Ikerketa eta Garapen
Zentroa.

 **innobasque**
Berrikuntzaren Euskal Agentzia
Agencia Vasca de la Innovación

tecnalia
MEMBER OF BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE



HELBURUA

Berrikuntza gurutzatua eta teknologiaren erabilera sustatzea, disrupzioa sor dadin eta KSIak etorkizun ekologikoago eta jasangarriago bateranzko trantsizioa erraztuko duten soluzioen katalizatzaile bihurtzeko, eta inpaktu soziala izan dezaten.



1. ERRONKA

Teknologia disruptiboak, eta haien eragina kulturean eta sormenean

RISTBAND

COPYRIGHT DELTA

mediar | BLACKRHINO VR

2. ERRONKA

CCIs as a catalyst for a green, sustainable future and societal impact

RESORTECS

SURFACE CLUB | LAB LA BLA

AUTOFABRICANTES


VIROO: ERREALTATE BIRTUALA ERRAZA DA
(Euskadiko kasua)





ERAKUNDE KOORDINATZAILEA

BDCC Euskadiko Kultura eta Sormen Barrutia.



HELBURUA

Itura- eta sormen-industrietako enpresak tokiko merkatuetan eta merkatu globaletan azkarrago sortu eta aintzatetsi daitezten lortzea, inbertsio pribatua, jasangarritasuna eta alde guztien aberastasuna sustatzeko ekimenak edo zerbitzuak aplikatuta.



1. ERRONKA

Zerbitzuen baterako sorkuntza

DISCE:
EKONOMIA SORTZAILE,
INKLUSIBO ETA
JASANGARRIEN GARAPENA

SORMEN-INDUSTRIETARAKO
TARTU ZENTROA



2. ERRONKA

Tokiko merkatuak eta merkatu globalak

STICHTING THEATER
ARTEMIS

GARAPENERAKO KULTURA-
LABORATEGIA (Egipto)

MOTMO.pro
(Euskadiko kasua)




3. ERRONKA

Kapital pribatuaren inbertsioa eskuratzea

WINWINNER

ENPRESA BERRITZAILEEN
SORTZAILEEI LAGUNTZEKO
PROGRAMA

**ERAKUNDE KOORDINATZAILEA**


KSigune Euskadiko Kultura
eta Sormen Industrietarako
Klusterre.

TZBZ-Travelling kooperatibak ahalbidetzen ditu **DC Living Lab** programak.

ksigune

KSientzako Goi Mailako Hezkuntza eta Ikerketa
Educación Superior e Investigación para las ICCs

Travelling U

**HELBURUA**

Hezkuntza,
etengabeko
bilakaeran dagoen
eta erronka
ugari dituen
mundu batean
aldaketaren
eragile gisa
jardungo duten
ondo prestatutako
profesional
berritzaile eta
sortzaileak
sortzeko
funtsezko tresna
gisa.



1. ERRONKA

Sormenarekin, berrikuntzarekin eta ekintzailetzarekin lotutako gaitasunak behar dituzten hezkuntza-sistema berriak

REINA SOFÍA GOI-MAILAKO MUSIKA ESKOLA

UGD Hub
Erasmus programa+ de
University Green Digital HUB

Sormen-enpresen inguruko hezkuntza - Rotterdameko Erasmo Unibertsitatea



2. ERRONKA

Eredu posibleak eta KSletako sektoreen egungo premiak


BIOFILIA – AALTO Unibertsitatea

ECIU Unibertsitatea

KAOSPILOT Ikaskuntza-espazioak diseinatzeko eta eskaintzeko programa

KSIGUNE
(*Euskadiko kasua*)





Creativity World Forum 2024

Euskadi Basque Country

More information on:

<https://cwf2024.eus/eu>

Antolatzaileak:

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

DC NETWORK

Kolaboratzaileak:

Koordinatzailea:

